

ENTZIA MENDIZERRAKO NATURGUNEA

Zunbeltzeko failak Andia Mendizerra eta Urbasa eta Entzia Mendizerrak banatzen ditu. Hiru mendizerra hauek haritzez, pagoez, intsusez, hurritzez, zelaiez, ibaiez eta gandor malkarrez osatutako edertasun handiko paisaia duen paradisu bat da eta bertan aztoreak, belatzak, basakatuak, basurdeak, erbiak, azeriak, eta abar... libre dauden ardi, behi, zaldi eta txerriekin bizi dira.

Paisai eder honetan txango bat egiterakoan, bai goiko gandorretatik bai mendizerrako oinetik, historiaurreko hondar ugari ikus daitezke: iraganera eramaten gaituzten eta mendi hauetan antzinako artzain-tradizioa islatzen duten Sorginetxe, Egileor, Mendiluze edo Itadako bezalako monolito, trikuharri, harrespil, tumulu.... Gainera, beren tontor eta haranek gure herriko aberastasun handiko ondare artistiko kulturala kontserbatzen duten Erdi Aroko hiribilduak eta herri politak gordetzen dituzte.

Entzia Mendizerrako Naturgunea Nafarroa eta Araba arteko mugan dago, Arakil eta Biarra ibaien ibarren artean eta Urbasako Mendizerraren Mendebalderantz doan luzapena da. Pagadi ederrez eta zelai berdez osatutako goilautada zabal bat da, Ipar eta Hego isurialdeak mendizale eta naturazaleak indartsu erakartzen dituzten Arabako Lautadara eta Haranara jausten diren egundoko gandor zorrotzak ditu. Mendizerrako mendi nagusienetako batzuk honako hauek dira: Legunbe (1.113 m), Murube (1.128 m), Ballo (1.197 m), Mirutegi (1.166 m), Arrigorrista (1.143 m) edo San Cristobal (Haranaren behatoki interesgarria). Hegoaldetik, Opakuako gainaren bidez, Entzia Mendizerrak Lokiz Mendizerraren Iparraldeko inguruko mendiekin bat egiten du.

Opakuako mendatean hasi eta, lehendabizi Iparrera eta gero Ekialdera, mendizerraren ertzean tontor lerro bat nabarmentzen da. Arabako Lautadara azaltzen den lehendabiziko tontor aipagarriena Peña Roja edo Txumartegi (1.099 m) da, punta pagoz estalita duena eta Mendebaldean beste bi punta txikiagoak dituen, denak Opakua (1.020 m) eta Bikuña (1.077 m) mendateen artean kokatuta daude. Hiruretatik ederrena eta ezaugarriena erdikoa da, kolore gorrikkako horma duena. Hurrengo tontorra, Ballo (1.198 m) mendia da, Entzia Mendizerrako altuena. Iparragorago Mirutegi (1.166 m) mendia altxatzen da. Burdinazko gurutze handi bat duen kareharriko tolestura malkartsuko tontor nahastezina, Azparrena eta Arabako Lautadaren behatoki pribilegiatua. Tontor honetatik aurrera gandorraren norabidea Ekialdera aldatzen da eta Atauko (1.110 m) ataka pasatu ondoren Surbe edo Atauko Haitza (1.155 m) izeneko mendiaren tontor luzea dago eta ekialderago, Andoiango edo Gamelateko mendatera iritsi aurretik, Azkarreta (1.089 m) eta Kortaundi (1.069 m) tontorrak daude. Mendate honen Ekialdera, Entzia Mendizerraren eta Urbasa Mendizerraren arteko mugan, Legunbe (1.129 m) altxatzen da. Andoingo herrirantz erortzen diren amildegi bertikalak ditu.

Mirutegi eta Gamelateko atakaren arteko mendien maldak Legaireko arraso handiak babesten dituzte. Estazio megalitiko garrantzitsua da, antzinako artzain-tradizioaren hondarra eta Euskal Herriko bazter honen iraganaren lekuko, non zelaietan sakabanatuta dauden txabola batzuetan oraindik jarduera hau bizirik iraun duen. Oso gertu, pagadian, Iguarango (1.040 m) kobazuloak daude, zailtasun handirik gabe zeharkatu daitezkeenak.

EL ESPACIO NATURAL DE SIERRA DE ENTZIA

La falla de Zunbeltz separa la Sierra de Andia de las Sierras de Urbasa y Entzia. El conjunto de estas tres sierras compone un paraíso donde robles, hayas, saúcos, avellanos, prados, ríos y agrestes crestas que constituyen un paisaje de una belleza extraordinaria, donde habitan azores, halcones, gatos monteses, jabalíes, liebres, zorros, etc... junto con ovejas, vacas, caballos y cerdos que viven libres.

En un paseo por este bello paisaje, tanto por sus cotas más elevadas como por la base de la sierra, también se puede observar una gran cantidad de restos prehistóricos: monolitos, dólmenes, cromlechs, túmulos... como los de Sorginetxe, Egileor, Mendiluze o Itada, que nos remontan al pasado y reflejan una ancestral tradición pastoril existente en estas montañas. Además, sus cimas y valles guardan villas medievales y bonitos pueblos que conservan una gran riqueza del patrimonio artístico cultural de nuestro pueblo.

El Espacio Natural de Sierra de Entzia está situado en plena muga entre Nafarroa y Araba, entre las cuencas de los ríos Arakil y Biarra y es una prolongación hacia el Oeste de la Sierra de Urbasa. Constituye una extensa altiplanicie de hermosos hayedos y verdes campas, cuyas vertientes Norte y Sur conforman imponentes y afiladas crestas que se precipitan a la Llanada Alavesa y a Harana, y atraen poderosamente a los aficionados a la montaña y la naturaleza. Algunas de sus principales alturas son: Legunbe (1.129 m), Murube (1.128 m), Ballo (1.197 m), Mirutegi (1.166 m), Arrigorrista (1.143 m) o San Cristobal (interesante atalaya sobre Harana). Por el Sur a través de los Altos de Opakua la Sierra Entzia se une a las estribaciones norteñas de la Sierra de Lokiz.

Partiendo del Puerto de Opakua, primero hacia el Norte y posteriormente hacia el Este, una cresta de cimas calcáreas destaca sobre el borde de la sierra. La primera de las cotas reseñables que se asoma sobre la Llanada Alavesa es Peña Roja o Txumartegi (1.099 m), cuya cima se encuentra cubierta de hayas y que a su vez consta de dos cotas menores ubicadas todas ellas entre los Ptos de Opakua (1.020 m) y Bikuña (1.077 m). La más bella y característica de las tres es la central que tiene un corte rojizo. La siguiente cima se trata del techo de la Sierra de Entzia, del monte Ballo (1.198 m). Más al Norte se encuentra la cima de Mirutegi (1.166 m). Su inconfundible cumbre de escarpados pliegues calcáreos, coronada por una gran cruz de hierro, es una privilegiada atalaya sobre el Valle de Azparrena y la Llanada Alavesa. A partir de esta cima la orientación de la cresta gira hacia el Este y después del Portillo de Atau (1.110 m) se encuentra la alargada cumbre de Surbe/Atauko Haitza (1.155 m) y más al Este, antes de llegar al Portillo de Andoin o Gamelate, están las cimas de Azkarreta (1.089 m) y Kortaundi (1.069 m). Al Este de este portillo se alza la cima de Legunbe (1.129 m), en el límite de la Sierra de Entzia con la Sierra de Urbasa. Presenta verticales precipicios que caen hacia Andoin.

Las laderas de cimas que se hallan entre Mirutegi y el Portillo de Gamelate dan cobijo a los grandes rasos de Legaie. Importe estación megalítica, vestigio de la ancestral tradición pastoril y testimonio del pasado de este rincón de Euskal Herria, donde todavía se mantiene viva esta actividad con varias chabolas diseminadas en la pradera. Muy cerca, entre el hayedo, se encuentran las cuevas de Iguaran (1.040 m), que pueden ser recorridas sin mayores dificultades.